



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Zangotraba**

Egilea / Autor: **Juan Kruz Igerabide**

Saila / Colección: Narratiba, 83

ISBN / EAN: 978-84-9746-888-6

Salneurria / Precio: 17,90 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orri kopurua / N° páginas: 240

Formatua / Formato: 15 x 22 cm

#### Egilea / El autor

**Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956)**. Euskal Filologia saileko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Haur literaturan egindako lan zabalarengatik ezaguna bada ere, badu helduentzako sailean liburu gogoangarririk: *Bizitzarekin solasean* (1989), *Sarean leiho* (1994), *Mailu isila* (2002) poesia liburuak; *Herrenaren arrastoan* (1998) eta *Hegia hezur* (2004) aforismo bildumak. 2005ean argitaratu zuen bere lehen eleberria helduentzat: *Hauts bihurtu zineten*. 2009koa da bigarrena *Elurra sutan*.

#### Lana / La obra

Eleberriko protagonistak bizitza doblea darama: aduanetako langilea da Joxe, eta detektibea Juan Fernandez, maitasun-kontuetan espezializatua. Biak dira bat eta bera? Edo hobe genuke gizakiaren sakonean murgildu eta nortasun konplexuaz mintzatu? Protagonistak bizi dituen garaiek ere ez dute laguntzen nortasun hori orekatzen. Garai zoroak, trantsizio garaiak: ametsa, ilusioa eta eldarnioa elkarrekin dantzara irten ziren urteez ari da nobela. Edurne bikotekidea, Dionisio lagun-min eta lankide, ez batak ez besteak jakingo du protagonistaren baitan irakurtzen. Azken batean, "inpostore" baten aurrean gaude: lagunena lagun bai, baina lagun desleiala. Ez da faltako poliziarekin elkarhartze ilunik eta ETaren aurkako gerra zikinaren zipristinik. Ezta saldukeriarik ere, *zangotrabarik* adiskide minenak azpiratzeko.

Pertsonaia komikoa gertatzen da eta ez da falta umorerik kontakizunean. Adiskidetasuna eta traizioa tramaren muina dira.

Zinema beltzaren igurtziak ilun-beltzeko *atrezzo* neurtua eskaintzen dio nobelari; eszenategi horretan gertatuko dira infideltasunaren unerik iradokigarrienak, zigarretaren kearen, sexuaren eta krimenaren giro patetikoan.

ISBN: 978-84-9746-888-6



9 788497 468886

[www.erein.com](http://www.erein.com)

  
erein